

E'tar Y'en eskutitzetik:

" Betarik ezin sortu ba'nabil ere, oso-osorik irakurtzen dut zuen aldizkaria. Mamiz, muiñez alegia, bikain-bikaina zuen aldizkaria, gai ernegarri ta mardulak erabiltzen eta arrotzen baidituzute, euskeraz orainñaldi ontararte ikutu ez ditugun jardun goitarrak. Euskerari dagokionez, xamurrago, xaleago idazten saiatu bear zendutekela derizkiot.

Gaurko litaratur-lanetan teknika-usain oparotegi billakatzen dugu eta nik uste ele-ederrak, lasaiago, eztiago, jatorrago, itz batean, aixago labaindu bear dula gure paperetan. Gaztetasuna nabari da zuen aldizkarian bere alderdi on eta txarrakin. Ba-dago kemen eta gogo zuen lanetan; ez ahantzi, ordea, neurriari eta zuhurtasunari so egiten... Ertzetara jo gabe erdibidea billatzen leia. Euskerak ortik dizu etorkizun..."

"YAKIN" aldizkariaren "ongilleei" eskerik biozkorrena eman bearrean arkitzen gera guziok, beren laguntzari esker, estuasun aundiegirik gabe gabiltzalako. Ba-dira bat baño euskaldun jator eta eskuzabal asko! Batzuek ixilpean eman digute beren izena agertu nai ezta. Oeri batez ere luzatzen diegu gure eskerronik biziena. Orainarte eskertzeko sukerarik ez dugu-ta izan. Batzuek kanpotik bestetsuek Euskalerritik lagundu digute. Datorren zenbakian, urrengoan, aldaketa txiki bat egiteko asmoa dugu laguntza oni esker. Bear aiña ez ba dugu ere, laguntzen jarraituko digutelakoan gaude.

Euskaldun eta euskaltzale guzien partetik, milla esker!